

FUNTZESKO ELKARTEAK

·Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektuak funtziona dezan, bazkide eta hornitzaile nagusiak hauek dira: ardo ekoizleak eta kola-edariaren hornitzaileak, kalimotxo egiteko behar diren osagai nagusiak ematen dituztelako. Horrez gain, aluminiozko laten fabrikatzaileak eta etiketak egiten dituzten enpresak behar ditugu, produktua ontziratatu eta merkaturatzeko. Ekoizpen eta ontziratze-planta bat ere beharrezkoa da, edaria nahastu, lata bete eta modu seguruan ixteko. Azkenik, logistika eta banaketa-enpresak, marketin eta diseinu agentziak eta aholkularitza juridikoa ere funtsezko bazkideak dira.

·Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Bazkide eta hornitzaile hauek garrantzitsuak dira proiektuaren kalitatea, segurtasuna eta bideragarritasuna bermatzen dituztelako. Haien bidez, kalitatezko produktua lortzen dugu, araudia betetzen dugu eta kalimotxo modu eraginkorrean banatu eta saldu ahal dugu. Gainera, marketinaren eta diseinuaren laguntzari esker, produktua erakargarriagoa bihurtzen da eta merkatuan lehiatzeko aukera handiagoa dugu.